


**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA**HONDARRIBIA 50**

**Egilea eta data: Francisco de Urcola; 1905.**

**Deskribapena**

Bi ataritarako –48 eta 50– proiektu bateratua, lursail nabarmenki karratua osatuz. Eraikinaren angeluak banatzen dituen antzeko bi fatxadaren konposizio simetrikoaren atzean bi etxe daude. Bata barrurantz garatzen da eta besteak kantoia okupatzen du. Biek erdiko patioa partekatzen dute eta eskailera bakoitzean oin bakoitzeko etxebizitza bat dute. Bastardea, lau goi oin, eta beranduago erantsitako jasodura atzeraemana ditu. Zabaldurako lehen bizitegi eraikinaren patroiak jarraitzen ditu: fatxadaren erregulartasunagatik nabarmentzen diren konposizio klasikoaren erakuntzak. Bertan aurkitzen ditugun balkoiekin zeregin garrantzitsua dute eraikina zatikatzean eta bere bolumenean. Halaber, berezko bereizgarri bihurtzen diren zurezko begiratokietan soluzio partikularrak ikus daitezke.

**Babes erregimena.**

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baioen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: bosgarren oineko jasodura.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlandua eta begiratokiak.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Hondarribia 48rekin batera osatzen duen esku hartze unitatean integratzearekin loturikoa.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzeak:
    - \* Kantoiko begiratokiaren gaineko jasoduraren karela eta 4. oineko begiratokiko arrotzerien formatua lehengoratzea.
    - \* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.